

# AURKEZPENA

Gida hau argitaratzea betekizun etikoa da, eta 14/2012 Legeak, ekainaren 28koak, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoak agindutakoaren ondorio, baita Eusko Jaurlaritzak pertsonekin hartutako konpromisoarena ere. Errespetatu beharreko giza eskubide funtsezkoa da pertsonen duintasuna; oinarrian du burujabetasun askea, norberaren sexu-identitatea barne hartuta, baita jaioberritan esleitutako sexuarekin bat ez datorrenean ere.


Transexualak oraindik orain mehatxupean daude, eta horixe aitortzen dute 14/2012 Legeak, ekainaren 28koak, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoak, eta 147/2015 Dekretuak, uztailaren 21ekoak, Euskadiko Osasun-sisteman pertsonak dituzten eskubideen eta betebeharren gaineko adierazpenari buruzkoak. Mehatxu-egoera horri aurre egiteko politika publiko espezifikoak behar dira, transexualek dagozkien eskubide eta betekizun zibikoak gauzatzean bazterkeriarik jasan ez dezaten.

Transexualtasuna ez da nahasmendu-egoera bat, ez gaixotasun mental bat, ez soziopatia bat, giza aniztasunaren isla baizik. Haurtzaroan bistaratzen da, eta, askotan, hezkuntza-, gizarte- eta osasun-arloen arreta koordinatua behar izaten da. Aipatutako 14/2012 Legeak transexualen osasun-arretarako gida klinikoa argitaratzea agindu arren, Jaurlaritzak hiru arlo horiek txertatu nahi izan ditu gida horretan, agiri bakarrean jasota gera daitezen jarduera eta gomendio guztiak.

Gida osatzeko, eragindako pertsonak (transexualen elkarteak), Osakidetza eta Eusko Jaurlaritzak (buru garen hiru sailak) osatutako lantaldea eratu da. Ikuspuntu eta sentsibiltate guztiak hartu nahi izan ditugu aintzat gidan eta, horrenbestez, ezagutza, esperientzia eta gaitasun desberdineko pertsonak osatu dute talde hori (transexualak, medikuntzako, hezkuntzako eta gizarte-politika-terapeutak, kudeatzaileak eta zuzendaritza-kideak), hainbat eragile ordezkatuz (erakundeak, zientzia-sozietateak, elkarte profesionalak, transexualen elkarteak, etab.).

Profil eta sentsibiltate aniztasun hori dela medio, maila intelektual eta etiko bikaineko diziiplina anitzeko emaitza lortu dugu, baina oso zaila egin zaigu denok onartzeko moduko testua adostea. Eskerrak eman nahi dizkiegu gidaren idazketan parte hartu duten guztiei, alderdi teknikoetan eta ados jartzeko egindako ahaleginagatik.


Eusko Jaurlaritzarentzat, gida «bizirik» dago; ez da bidea amaitu. Eta ziur gaude transexualek eta genero-adierazpide batzuek jasaten duten bazterkeria murrizteko baliagarria izango dela, baita gizarte-, hezkuntza- eta osasun-arloko profesionalak jardunbide egokietan trebatzeko ere.



**Cristina Uriarte Toledo**  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta  
Kulturako sailburua



**Ángel Toña Guenaga**  
Enplegu eta  
Gizarte Politiketako sailburua



**Jon Darpón Sierra**  
Osasuneko sailburua